

### **3. AKTA**

2002ko martxoaren 4an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean, bi mila eta biko martxoaren lauan, Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian, Joseba Belaustegi Cuesta Idazkaria bertan delarik, hurrengo zinegotziak bildu dira:

Joseba Portugal Arteaga j.  
Rikardo del Pozo Gil de Albornoz j.  
Obdu Lorenzo de Dios a.

arauz kurtsatu eta publikatu den deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko. Ez du azinetorria agertu Anjel Ouviña Vidal jaun zinegotziak.

Lehendakaritzak konstataturik Udalbatza legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 10:00etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekinez.

#### **1.- 02/2. kontu fakturen zerrenda.**

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea 2/02 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda, HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA BEREHUN ETA BERROGEITA SEI EURO ETA HIRUROGEITA BI ZENTIMO (73.246,62Euro).

#### **2.- Urgull, 8 kalean obra egiteko baimen-eskaera.**

Ikusirik Juan Diego Castro Souto jaunak 2002-1-22an egin eskaera, hau da, OBRA TXIKIAK EGITEKO LIZENTZIA, Urgull kaleko 8-3. A bere etxebizitzan leihoetako zureria ordezkatzeko, hots, irekidura labandera izango duen 3390 x 2140 mm-ko atea balkoian jartzeko, 1570 x 1320 mm-ko 2 leiho, zubi termikodun haustura duen kolore zuriko aluminioan 1370 x 1320 mm-ko leiho bat eta kolore urdineko aluminiozko pertsianak, kristal opakoak dituen 2460 x 1000 mm-ko balkoirako defentsa eta balkoiko baranda ordezkatzeko kolore berdeko baranda bat jarritz.

Ikusirik Teknikariak eman duen aurkako txostena irekidura labandera izango duen 3390 x 2140 mm-ko atea jartzeko.

Kontuan izanik Korporazio Lokalen Zerbitzuen Arautegiko 9. artikulua eta Hirigintz Diziplinaren Arautegiko 4.a eta Alkatetzaren 1999ko uztailaren 12ko Dekretua konpetentziak Gobernu Batzordari delegatzeko, honek

ERABAKIDU

LEHENENGO.- JUAN DIEGO CASTRO SOUTO jaunari Urgull kaleko 8-3. A etxebizitzan obra txikiak egiteko lizentzia ez ematea, hau da, kristal opakoak dituen 2460 x 1000 mm-ko balkoirako defentsa jartzeko zeren eta hegalkinaren konfigurazioa aldatu egiten baitu, bi aldeetan hegalkin irekia izatetik hegalkin erdirekia izatera pasatuz eta hau galarazia dagoelako Pasaiako Arau Subsidiarioetan.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsoekin.

### **3.- Pasaiako Antzerki Tallerrari dirulaguntza.**

Kultura eta Hezkuntzako Zinegotzi Delegatuak 2002ko otsailaren 19an emandako idazkiko proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKIDU

LEHENENGO.- PASAIAKO ANTZERKI TAILERRARI 9.000,- euro ordaintzea 2002ko subentzio bezala, hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-198/02 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Interesatuei eta Kulturako Arduradunari jakinaraztea Udalak ez daukala asumiturik antzerki zerbitzu publikorik eta, beraz, elkargo pribatua denez bere burua Pasaiako Udal Antzerki Tailerra deitzen dena ezingo duela "udal" espresioa erabili bere izaeraz nahasketarik sor ez dadin.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsoekin.

### **4.- "Santiago Plaza urbanizatzeko" obraren 9. ziurtagiria.**

Gobernu Batzordeak Udal Aparejadoreak aldeko txostena aurrez emanik, "Santiago Plaza Urbanizatzeko" obraren 9. ziurtagiria onartzea erabaki du, Luis Peña, Mario Sangalli eta Rocío Peña, Arkitektoek eta Obra Zuzendariak luzatua, CONSTRUCCIONES OTEGUI GAZTAÑAGA, S.A. enpresa kontratistaren alde BERROGEITA HIRU MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HIRU EURO ETA HOGEITA HAMASEI ZENTIMO (43.623,36 Euro) euroko inportez (7.258.317,- pta.).

Hau guztia D-449/01 Disposamenduaren kargura.

### **5.- "Pasai Antxoko Azoka birgaitzeko" obraren 1. ziurtagiria.**

Gobernu Batzordeak, Udal Aparejadoreak aldeko txostena aurrez emanik, bertako zinegotzien aho batez erabaki du ontzat ematea "Pasai Antxoko Azoka birgaitzeko" obraren 1. ziurtagiria, Joan Kruz Altuna, Eduardo Montoia eta Jaime Vergel Obra Zuzendariak luzatua ERAILAN, S.A. enpresa kontratistaren alde, EHUN ETA HOGEITA HAMABOST MILA SEIEHUN ETA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA BAT ZENTIMOKO (135.619,81 Euro) inportez (22.565.238,- pta.).

Hau guztia D-463/01 Disposamenduaren kargura.

### **6.- "Arrokaundietako Jolas Eraikuntza" obraren 3. ziurtagiria.**

Gobernu Batzordeak, Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, bertako zinegotzien aho batez erabaki du ontzat ematea "Arrokaundietako Jolas Eraikuntza" obraren 3. ziurtagiria, Karlos Callejo González Obra Zuzendari jaunak luzatua OTAKA, S.L. enpresa kontratistaren alde ZAZPI MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA BAT EURO ETA HOGEITA ZAZPI ZENTIMOKO (7.561,27 Euro) inportez (1. 258.090,- pta.).

Hau guztia D-633/01 Disposamenduaren kargura.

### **7.- "Arrokaundietako Joko-Eraikuntza" obraren 4. eta azkena (gehiarra) ziurtagiria.**

Gai hau mahai gainean geratu da kontratistak eta Zuzendaritza Fakultatiboak aurretiazko betebeharrak osa ditzaten obra osagarriak edo dagozkion modifikazioak onartzeko.

### **8.- 9. ziurtagiria: "San Pedro 2.01 Morales Oliver-Esnabide Hiri Eremua berriro urbanizatzeko" obrarena.**

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez erabaki du ontzat ematea "San Pedro 2.01 Morales Oliver-Esnabide Hiri Eremua berriro urbanizatzeko" obraren 9. ziurtagiria, Joan Karlos Lapazarán (Arkitektoa) eta Jose M<sup>a</sup> Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea) Obra Zuzendari jaunak luzatua CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A. enpresa kontratistaren alde BI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIKA EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMOKO (2.171,60 Euro) inportez (361.324,- pta.).

Hau guztia A-1388/01 Baimenduaren kargura.

### **9.- 10. ziurtagiria (azkena): "San Pedro 2.01 Morales Oliver-Esnabide Hiri Eremua berriro urbanizatzeko" obrarena.**

**ETA  
EZ**



Gai hau mahai gainean geratu da kontratistak eta Zuzendaritza Fakultatiboak aurretiazko betebeharrak osa ditzaten obra osagarriak edo dagozkion modifikazioak onartzeko.

### **10.- Donibanera heltzeko barrutia, Lezo-Bide kalea, berriz urbanizatzeko 7. ziurtagiria.**

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez erabaki du ontzat ematea Donibanera heltzeko barrutia, Lezo-Bide kalea, berriz urbanizatzeko 7. ziurtagiria, Joan Karlos Lapazaran (Arkitektoa), Igor Urrutia (Bide, Kanal eta Portuetako Injinerua), Asmatu eta Jose M<sup>a</sup> Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea) Obra Zuzendari jaunek luzatua CONSTRUCCIONES OTEGUI, S.L. enpresa kontratistaren alde BERROGEITA BAT MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA SEI EURO ETA LAUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMOKO (41.466,93 Euro) inportez (6.899.516,- pta.).

Hau guztia A-1847/98 Baimenduaren kargura.

Eta aztertzeko beste gairik ezean batzarraldia amaitutzat eman da 11:00etan, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.